

SARRERA

Arima Jantzi proiektua mugikortasun murriztua edo desgaitasunak dituzten pertsonen eguneroko erronkei erantzuteko sortu da. Jantzea askorentzat zaila edo nekagarria izan daiteke, eta horrek haien autonomia eta bizi-kalitatea kaltetzen du. Horregatik, arropa eroso, praktiko eta politak diseinatzea da gure asmoa, pertsona horiek modu independentean jantzi daitezen.

Ez gara arropa denda arrunt bat izango: baizik eta pertsonak jarriko ditugu erdigunean, haien erosotasuna, segurtasuna eta arropa estiloa zainduz. Gure jantziek xehetasun bereziak izango dituzte (kremlera eta botoi errazak, ehun leunak eta transpiragarriak) eta kalitate handikoak izango dira, prezio justuan.

Eguneroko arropak, kirol eta festa-jantziak eskainiko ditugu, baita behar eta gustuetara egokitutako arropa pertsonalizatuak ere. Gure helburua da moda guztiontzat izatea: inklusioa, berdintasuna eta askatasuna sustatzen dituen moda, gorputz edo egoera fisikoak ezarritako mugak gaindituz.

LOGOA:

